

MONDRAGON CITY CHALLENGEKO HIRUGARREN EDIZIOAREN AZKEN TRAKA

Joan den 2025eko martxoaren 3an, Mondragon City Challengeko epaimahaiak finalerako sailkatu ziren sei taldeen nortasuna jakinarazi zuen, eta, apirilaren 10ean, sei finalistek proiektuen maila erakutsi zuten, epaimahai profesionalaren aurrean egindako defentsaren bidez, hirugarren edizio honen itxiera ekitaldian, Arrasateko Amaia Antzokian. Garaileak Dianor eta Ounje taldeak izan dira 19-24 urte eta 16-18 urte bitarteko kategorietan, hurrenez hurren.

Dianor taldeak, hiru mexikarrez osatuta, segurtasun osoa eskaintzen duen diru zorro bat aurkeztu zuen, barruko txartelen lapurreta eragozteko. Modu guztiz jasangarria fabrikatuta dago, eta hasi dira sare sozialen bidez ikusgarritasuna ematen, eta Mexikon merkataritza guneetan erosi ahal izango da eta munduko gainerako lekuetan internet bidez. Produktua fabrikatzeko sortu duten kooperatibak eredu kooperatiboaren oinarritzko printzipio guztiak bermatzen ditu.

Ounje taldearen proiektua, berriz, Kolonbiatik dator, eta gorputza eta arima elikatzeke jotetxe ekoturistiko eta komunitario bat da. Horrekin, elkartasunezko motor bat sortu nahi dute, baratze komunitarioak, turistentzako ostatuak eta gida turistikoentzako prestakuntza konektatuko dituen, bizitzak eraldatzeko asmoarekin, eredu kooperatiboan oinarrituta. Plater bakoitza identitatearen ospakizun bat izango dela diote.

Lehenengoentzako saria Kanadarako bidaia bat da, eta, bigarrenentzat, Pariserako bidaia.

Bi proiektuak ASEkoop.ek tutorizatu ditu.

Originaltasunaren Sariaren irabazlea, JIA, finaletik kanpo geratu ziren 14 taldeen artean aukeratu zuten. Pertsona mutuen komunikazioa errazteko pentsatutako proiektu bat da, eta eskularru berezi bat da, zeinuen hizkuntza itzultzen duena, aplikazio baten bidez. Saria 800 eurokoa da. Proiektua ALEk tutorizatu du.

Baina hautatutako 20 taldeek bizi izan duten asteak, bereziki Arrasaten izan diren sei finalistek bizitakoak, atzean geratu den zortzi hilabeteko lana merezi izatea ekarri du, elkar ezagutzeko aukera ematez gain, kooperatibismoan murgiltzeko aukera eman baitie, prozesu osoan enpresa mentore gisa aritu diren kooperatiben funtzionamendua barrutik ezagutzera eraman dituzten jardueren bidez. Hainbat kooperatiba bisitatu ahal izan dituzte, hala nola Laboral Kutxa, Eika, Danobatgroup, Onnera Group, Lana, Fagor Automation, Fagor Healthcare, Erreka eta LKS Krean.

Hirugarren edizioaren antolatzaileak izan dira El Diario Vasco, Arrasateko Udala, Eusko Jaurlaritza, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua, Konfekoop, Mondragon Korporazioa, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Mondragon Unibertsitatea, eta Nazioarteko Aliantza Kooperatiboa, ASEkoop, Saiolan, Leartibai Fundazioa,

Arizmendiarrietaren Lagunak Elkartea eta Garaia Parke Teknologikoa izan dira laguntzaileak.

Baina ezin dugu alde batera utzi ALEko bazkideek egindako lan handia, 17 proiektu tutorizatu dituztenak, hau da:

JUAN IGNACIO AIZPURUA
ANDONI ALUSTIZA
JOSE MARI ALVARO (2)
IÑAKI ARANBURU
AUGUSTO ARANETA
UNAI BORDES
ALBERTO GORROÑOGOITIA
JOSE LUIS JIMENEZ BREA
JOSE MARI LARRAMENDI
MIKEL LEZAMIZ (2)
ADELAIDA MAIDAGAN
NEREA MAKAZAGA
MAIALEN MENDIZABAL (2)
JAVIER SOTIL

Arizmendiarrietaren Lagunak Elkartea osatzen dugun guztion partetik, eskerrik onena denoi.